

MUNBERRI

Mundu berri baten ikaskuntza.



Endika Ruiz de Arbulo, Laaraj Hajar, Laia Mateo eta Haizea Vicente
STARTINNOVA proiektua, Vitoria - Gasteiz
1 batxillergoa, 2022/2023

1. SARRERA

Gaur egungo Hezkuntza-sisteman egunerokotasunean ezinbestekoak diren eduki oso garrantzitsu batzuk ez dira irakasten. Zenbat gaiei buruzko informazio eta formakuntza falta oso ohikoa dela pairatu dugu, indarrean dauden eduki kurrikular arruntek ez bait dituzte zenbait arlo jorratzen. Guk ikastetxe eta unibertsitateetan lantzen ez diren eduki horiek landu eta irakatsiko ditugu gizarte oso eta garatuago bat lortzeko asmoarekin. Gure ikasteko metodoa praktikan eta partaidetzan oinarritzen da, horregatik, klase hauetan formakuntza erreal eta praktikoa bilatzen dugu. Gainera, guretzat oso garrantzitsua da ikasketak edo oinarrizko ezagutzak jasotzeko aukera izan ez duten gazteek gizartean integratuta sentitzea, beraz, gure proiektua aurrera atera dadin gure dedikazio guztia jarri dugu eta hainbat elkarte eta erakunde publikoen laguntza eskatuko dugu ikastaro hauek herritar guztien eskura jartzeko.